

Joxe Azurmendirekin solasean

Gure esker on eta errekonozimendua azalduz

2014 hasieran, Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko (ALE) buru nintzelarik, Joxe Azurmendirengana hurbildu nintzen eta, laguntza eske, bere Donostiako bulego atea jo nuen. Urte horretako maiatzaren 14ean antolatu genuen Batzar Nagusiaren ondoren, hitzaldi bat eskatu nion.

Hitz-aspertu luze bat izan genuen bertan, bere hitzaldia ahalik eta egokien prestatu zezan eta zalantzarik gabeko baietza eskaini zidan.

Horrela sortu zen bere hitzaldi sakona: *El pensamiento de Arizmendiarieta en su contexto*. Gero landuxeago, Eusko Ikaskuntzan argitaratu zuena.

Batzar Nagusi egunean, bere bila joan nintzen Donostiara eta, Arrasate bidean autoz gindoazen bitartean, kooperatibek eta euskal gizarteak bizi zituzten erronkei errepaso eder bat eman genion bion artean: Bake prozesu amaigabea, Euskadirentzako eskatzen genuen “estatus” berria, krisi ekonomikoa eta, batez ere, Fagor Etxetresna Elektrikoen Kooperatibaren porrota. MONDRAGON kooperatibentzako kolpe sinboliko eta ekonomikoa, eta ... hainbat kontu.

Bueltatzerakoan, Donostiaraino lagundu nion autoz. Orduan bere bihotza zabaldu zuen, eta Arizmendiarrietarekiko “miresmena” eta bere atxikimendua aitortu zidan eta hitzaldian azalduko ideia batzuk azpimarratu nahi izan nizkion. Bereziki, “el dilema del prisionero”z hitz egin genuen. Ezin ahaztu kooperatibei buruz esan zizkigunak *“Ematen badigute, eskerrik asko; baina ez eskatu kooperatibismoari geuk hari eman gura izan ez dioguna. Horren gaurko mugak eta ezintasunak atzo geuk ipini dizkiogunak dira, horren akatsak geure akatsak dira”*

Bidenabar harriduraz konturatu naiz Azurmendiren heriotza ondorengo egunonotan, hedabidetan ez dudala ikusi bere doktoradutza tesiari buruz inolako erreferentziarik: GIZON KOOPERATIBOA, Jose Maria Arizmendiarrietari buruz egiten baitzuen tesiak, eta 1984en aurkeztu Euskal Herriko Unibertsitatean.

Hilabete batzuk beranduago, Lankide Kutxaren laguntzarekin 1985 urtean “**El Hombre cooperativo**” izenburuarekin argitaratu zena.

Azkeneko bizpahiru belaunaldi kooperatibistentzako erreferente nagusi izan dugu, eta, zalantzarik gabe, Arizmendiarrietak bultzatu zuen kooperatibagintzaren kontzeptualizaziorik mardulena.

1997ko maiatzaren 30ean, Eusko Legebiltzarraren lege bidez, Mondragon Unibertsitatea (MU) hiru ikastetxe eta kooperatibetako elkarte gisa onartu zen: Mondragon Goi Eskolan Politeknikoa, Oñatiko ETEO (Enpresagintza) eta Eskoriatzako Irakasle Eskola.

Aurretik, 1996an, Mondragon Unibertsitatea S. Coop. bigarren mailako kooperatiba sortu zen.

Gogoan izan behar dugu, halaber, 97-98 ikasturtean MUri hasiera ofiziala eman zitzaiola, eta Joxe Azurmendik bere inaugurazio klasea eskaini zigula.

Etixerako bidean, burutazioak bor-bor, “bakarrizketa” antzera lagundu zidaten autoan.

- Joxe Azurmendiren eskuzabaltasun eskertu ezin adinakoa izan dela. Ezeren truke, ezer eskatu gabe. Berriz ere, mila esker Joxe. Deitu dizugun bakoitzean, hor egon zarelako, beti sentibera bezain zorrotz, zeure hausnarketetan. Pertsona handiek ezer gutxi eskatu eta dena ema ohi dute.
- Gure herri honen “kapital soziala” horrelako pertsonek osatzen dutela eta aberasten.
- Hirugarrena, agian gaizto xamarra dateke. Bai, Kooperatibak ezezagunak dira gure artean, baina ez al da erosoagoa horrela? Bazter batera eraman eta geure betiko martxan jarrai dezagun patxadaz. Horrela ote?

Jose Mari Larramendi

(ALE - Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko kidea)

Zarautz, 2025eko uztailaren 4a